# 1880tik IREKIA

Irudiak: PIETRO GOTTUSO

Kartoi gogorrean egina. 25 x 25 cm. 32 or. 16 €.

ALBUM IRUDIDUNAK EGITEKO NAZIOARTEKO XIII. "COMPOSTELA SARIA

**1880tik irekia** (euskara)
ISBN 978-84-9172-201-4. Compostela Saria.

**Desde 1880** (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-048-5. Premio Compostela.

**Dende 1880** (galegoa)
ISBN 978-84-1343-047-8. Premio Compostela.

**Des de 1880** (katalana)
ISBN 978-84-18558-04-7. Premi Compostela.

**Desde 1880** (portugesa)
ISBN 978-989-749-137-5. Prémio Compostela.

**Dal 1880** (italiera)
ISBN 978-84-1343-034-8. Premio Compostela.




«1880tik Irekia» narrazio grafiko bat da, hitzik gabeko historia bat, azken 140 urteen joana erakusten diguna. Mendebaldeko hiri batean giroturik, erdialdeko kale bateko eraikin batek denboraren ibilbidea ikus dezakegu ñabardura askori erreparatuta: herritarren janzkera, garraiobideak, erakusleihoetako gauzakiak, jendearen ogibideak edo aurrerapen teknologikoak.

Janzkeran, kotapen harroa, garai viktoriarreko esmokina edo gaur eguneko moda, edo 20ko hamarkada alaiko estiloa edo 60ko hamarkadako *hippie* mugimendua. Zalgurdiak, lehen ibilgailu motordunak, zenbait markatako autoen silueta ezaguna, motoak, den-denak garai baten adierazgarri. Mugarri historikoak: mundu gerrak, 1918ko pandemia, gizakia Ilargira ailegatu zenekoa... Gizartearen antzaldaketa hartan, ez dira falta ez artea, ez etxetresnak, ez ordenagailuak edo bestelako tresna elektronikoak.

Aldaketa horiek guztiak Kronos adi-adi begira dagoela gertatzen dira, denboraren jainkoa, ate baten gainean hor baitago testigu, eta liburu-denda ere gertakari kate horren lekuko ezin hobea da; lekuko, eta, merkatuaren aurrerapenen eta dinamiken biktima ere bai.

Pietro Gottusoren irudiak tekniko akrilikoz eginak daude, zurean, eta ñabarduren aberastasunagatik nabarmentzen dira, baita zorroztasun historikoagatik ere, dokumentazio prozesu zorrotz baten fruitu.

- **Gaia:** denboraren joana, Historiaren ibilbidea, liburu-denda bat lekuko,
- **Adin egokia:** 6 urtetik gora.
- **Nabarmentzekoak:** Nazioarteko XIII. "Compostela" saria; hitzik gabeko liburua; Historia: ogibideak, modak, artea, industria eta teknologia, mugarri historikoak; liburu-denden eginkizun sozial eta kulturalari buruzko gogoeta.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/1880-tik-irekia-eusk

**Pietro Gottuso**

(Verona, 1987)

Filosofia eta Ekialdeko Antzinako Hizkuntzetan graduadu eta gero, Irudigintzari buruzko eskola batean bere prestakuntza zabaldu nahi izan zuen, "irudiaren komunikazio ahalak txunditurik". Finalista izan da sariotan: 2018ko Renner saria, Nazioarteko XXIV. "Humor Gallarate saria, Ilustraziorako Sansperarte Paese saria. Arteko Umoreari buruzko Nazioarteko 30. Biurtekoan hautatua izan zen. «1880tik Irekia» da bere lehenbiziko liburua eta, honekin, Album Irudidunak egiteko Nazioarteko XIII. "Compostela Sariaren irabazlea izan da.

http://www.instagram.com/pi.got







www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com